

HAUR ETA GAZTEEN AISIALDIKO BEGIRALEA

Astialdi Eskolak trebakuntza-zentro espezializatuak dira, eta bakoitzak bere ereduari jarraituz, antolatutako mugimenduen bitartez arlo honetan trebatzeko eskabide berria eta handiari erantzuna emateko eskaintzen duten hezkuntza-proiektua zehaztu behar dute.

SARTZEKO BALDINTZAK

- 18 urtetik gora izatea, edo, matrikulazio-urte barruan adin hori izatea (praktikak egin aurretik).
- Kasuan kasu eskolak berak eska ditzakeen baldintza osagarriak.

TREBAKETARAKO HELBURUAK

- Begiralearen eredia osatzea honako jarrera hauek kontuan izanik: heziketarekin berarekin koherentzia izatea, zerbitzua, prest egotea, ingurua ondo ezagutzea eta inguruarekin harreman zuzena izatea, tolerantzia eta talde-lana.
- Aisialdian heziketa bideratzeko planeamendua, metodologia eta pedagogia ezagutu eta bereganatzea.
- Haur edo/eta gazte mugimendu, talde zein elkarte baten iharduerak suspertzeko beharrezko diren jakintza arloak eta baliabide tekniko zein didaktikoak ematea.

Trebakuntza-aldi teorikoa:

GAI TEORIKOAK (160 ordu)

- Aisialdiari buruzko Soziologia.
- Aisialdiari buruzko Pedagogia.
- Aisialdiari buruzko Psikologia.
- Parte hartzea eta heziketa-jarduera Aisialdian.

GAI TEKNIKOAK (60 ordu)

- Adierazpideak.
- Susperketa.
- Natura-arloko pedagogia: irtenaldiak egitea eta kanpatzea.
- Ingurumen-heziketa.
- Talde-dinamika.

Ikasleak, programatutako ordu-kopuru osoa bete beharko du eta, hala badagokio, era egokian justifikatu beharko du eskolan bertan ikastorduak galdu izana. Eskolak, galdutako ordu horiek errekuperatzeko, ikasleak egin beharrekoa agintzeko gaitasuna izango du. Trebakuntzaren osagai gisa, ikasleak berak egindako lan teorikoa eskatuko da, bai orohar ikasitako guztian sakonduz, bai trebakuntza-aldi teoriko-praktikoan aztertutako gai edo arloetako bati buruzkoa.

Trebakuntza-aldi praktikoa:

Bi erataria bete daiteke: bai era trinkoan, bai ikastaroan zehar sakabanatuta, baina, beti ere, trebakuntza-aldi teorikoa bukatu eta hurrengo urteko iraila baino lehen.

Era trinkoan: Programatutako jarduera praktikoa batean parte hartuz baino ezin izango da burutu, udaleku batean, kanpamenduan, ibilaldian edo antzeko ekintza batean. Gutxienez 12 egun jarraian bete beharko dira (iraupena 120 orduetik gorakoa izango da).

Sakabanatuta: Horrela azalduz gero, praktika-aldia trebakuntza teorikoarekin batera egin ahal izango da. Iraupena, gutxienez, hiru hilabetekoa izango da eta, 120 ordu bete beharko dira.

Trebakuntza-aldi praktikokoaren arduradun Aisialdi Zuzendari titulu ofiziala duen pertsona bat izango da. Ardura hori bere borondatez hartuko du bere gain, beti ere, eskolaren irizpideen arabera.

IZEN-EMATEA

Matrikula-epea Irailean izaten da.

- * Aisialdi eskola batzuk irailaz gain beste data batzuk eskaintzen dituzte, hoberena beraiekin kontaktuan jartzea da.

Iturria: EUSKO GAZTEEN INFORMAZIO ETA DOKUMENTAZIO ZENTRO
KOORDINATZAILEA

ESKOLA	HELBIDEA	WEB
URTXINTXA	Mundaiz bidea 8 - 2 E 20012 DONOSTIA Tfnoa.: 943 270033 Faxa: 943 270079 gipuzkoa @urtxintxa.org	http://www.urtxintxa.org
HEZKIDE ESKOLA	Heriz pasealekua, 82 20080 DONOSTIA Tfnoa.: 943 311474 Faxa: 943 311476 hezkide @euskalnet.net	http://www.hezkide.org
EZIKO	Heriz pasealekua, 16 20008 DONOSTIA Tfnoa.: 943 217413 / 660 382753 Faxa: 943 473789 ezikoeskola@hotmail.com	http://www.ezikoudalekua.net
LARRUNARRI	Txallupagille plaza, 2 - behea 20006 DONOSTIA Tfnoa.: 943 473108 / 653 728002 larrunarrieg@euskalnet.net	http://www.larrunarri.com
LIBRE HENRY DUNANT- GURUTZE GORRIA	Ategorrieta, 10 20013 DONOSTIA Tfnoa.: 943 222222 Faxa: 943 326511 jumaur@cruzroja.es	
MUNDO NUEVO	Amara kalea, 23 20006 DONOSTIA Tfnoa.: 943 457511 Faxa: 943 457511	